

LOMBIDE, ORGANISTA

Juan SAN MARTIN

Aita Donostia izan zen bere iker lanen bidez Juan Andres Lonbide organistaren izena goraipatu zuena, organojoztzaile ez ezik musikagile bezala ere. Izatez elgetarra zen Lonbide eta **Elgueta con Anguiozar y Ubera** (Donostia, 1975) deritzan monografiagintzan ari mintzenean bertako seme ospetsuen artean sartu nuen. Merezimenduz sartu ere. Gerotzik beste zenbait berri iritsi zaizkigu eta agirien hariari jarraitu ahal izateko on deritzot artikulu hontan horien adibideak ematea.

Juan Andres Lonbide eta Mezkia 1745. urteko azaroaren 14an jaio zen Elgetan. Bere gurasoak, aita elgetarra eta ama arabarra zituen. Hemeretzi urte zituenerako Bilboko Done Joanes (Joanes bat besterik ez zen, baina euskarazko **Joanes**-tik hartz uen gaztelera itzultzean plural zentzua eta gure egunotan ere oraindik **Santos Juanes** bezala ezagutzen da) eliza hortan organista zen. Hortik ikus nahikoa gazterik erakutsi zuela musikari doaina. Hogetiru urtekin apaiztu zen eta hoigeitabederatzikin, 1774an, Jaun Done Jakue (Iglesia del Señor Santiago) elizan organulari nagusi agertzen zaigu. Urte hortan bere alogera gehitzeareni eskaria egin zuen eta eskari onartzet honako ohar hau aurkitzen da: «y salario atento a la especial habilidad de organista y compositor». Beras, doain hoberik ezta erraz.

Bere eskaintzaz, klabe eta biolinerako sei sonata aurkeztu zituen Sociedad Bascongada de los Amigos del País erakundera (elkartaren honen **Extractos** deritzan agirietan agertzen deitez, 1772an), baina gaur egun ez dakigu nora joan ziren partitura horiek eta galduzat ditugu. Horrez gainera, liburuxka bat ere idatzi zuen **El arte del organista** zeritzana, baina hau ere galdua da. Argibide horiek Aita Donostiaren **Música y músicos en el País Vasco** (1951) eta **Música de tecla en el País Vasco**, Siglo XVIII (1953) liburuetatik jaso nituen. Bigarren hontan agerrera zuenez, J.A. Urreta Idiazabalgo organulariaren kuadernoan aurkitu zituen Lonbideren hiru partitutarik bi hautatzen zituela argitara emateko. Gainerakoak nondirenik ez dakigu.

Behar bada, Lonbidek organulari bezala bere karguak izan zituen tokietatik jarraitu dezake lorratza eta hara hór gure musika ikertzaleek bete beharrezko duten lanetariko bat.

Oraintsu berri onik ere izan dugu. Orainarte, bere bizitzaren haria, Bilbon bertan galtzen zitzagun 1778. urtean, baina orain Oviedo-n aurkitzen ditugu aztarnen jarraipenak. Emilio Casares Rodicio-ren **La Musica en la Catedral de Oviedo** (Oviedo bertan Unibertsitateak 1980an argitaratua) liburuko organisten zerrenda batean aipatzen bai da bere ofiziko kargudun.

Lonbide elgetarrak, 1778ko azaroaren 27an oposizioz irabazi zuen Oviedo-ko katedralean organolaritza eta han ja-

rraitu zuen zortzi urteren buruan. Han sartzeko gainditu behar izan zituen lehiaketa eta beste zenbait zertzeladaren berri zehatzak eman dizkigu gure egunotan Oviedo-ko katedralean organista den Angel González Pérez jaunak «Don Juan Andrés Lombide y Mezquia. Distinguido organista que fue de la Catedral de Oviedo» deritzan lanean (Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, XXXVII, 1981, 630-634 orrialdeetan).

Guy Bourligueux-ek «Recherches sur la musique à la Cathédrale d'Oviedo» (**Mélanges de la Casa de Velázquez**, tome III, 1967) lanean holakorik aipatzen ez bazuen ere, orain, E. Casares Rodicio eta A. González Pérez jaunek beren lanetan ematen ditzutzen argibideeri esker zalantzak gabe gelditzen zaigu Lonbide zortzi urtez Oviedo-ko katedralean organista nagusia izan zena.

Oviedo-ko oposizioetan, González jaunak adierazten digunez, beste bost partaide ere izan ziren, honako hiri hauetan organista zirenak: Santander, Mondoñedo, Sevilla, Villafranca eta Plasencia. Bozetara, Bilbotik joan zen elgetarra gelditu zen besteen gainetik hautatua.

Bere egitekoa, kargu hartan, bakarrikoan edo kaferako korrari lagunduz egunoroko elizkizunetan, goiz osoko lana izaten omen zen eta arratsaldeko parte bat eta horrez gainera koruko gaztetxoei musika erakustearrarduratu. Bere bete behar horiek zuzen eraman zituen eta bere itzala hartzera etorri zen.

Garai berean Joakin Lázaro aragoiarra izan zen Kaferako Maisu eta Lonbiderekiko harremanak ez ziren izan hain onak, zeren 1782ko uztailaren lehenean, katedraleko batzarrrean Lázaro-ren idazki bat irakurri zen Lonbidez kexatuz eta handik zortzi egun barru batzarreak Lonbide deitu zuen elkarrekiko laguntzako disiplina eskatuz. Gainerakoan, Oviedo-ko egotaldiaz ez dakigu deus, organista ospetsua izan zela baizik.

1786. urteko martxoan Madrid-eko Real Capilla de la Encarnación-eko organolaritzaren aulkia irabazi zuen, Espainiako organolari guziak hain estimu handian zuten plaza. Urte bereko uztailean joan zen Madrid-era eta han jarraitu zuen bere azken egunak arte, bere ofizikoak hain gogoko zuten kargua betez Espainiako hiri nagusian.

Hortik ikus dezakegu Elgetako seme hau ez zela edonor. Gaur, bere izena gorestean, arrazoi gehiagoz gogoratu nahi ditugu hor zehar nonbait galdurik dauden esku-izkribuak, bere asmamenez sortutako doinu eta organolaritzari buruzko liburu hura. Madrid-eko artxiboren batean izango dira noski elgetarraren paperak eta han edo bera ibili zen tokietan iker-tu beharrezko zaigu gure kultur ondasunaz jabetzeko.

Sonata de 5.^o tono

Londide

This section contains two staves of musical notation for a piano. The top staff uses a treble clef, and the bottom staff uses a bass clef. The music consists primarily of eighth-note patterns, with occasional sixteenth-note figures and rests. The piece begins with a steady eighth-note pulse in the bass, followed by eighth-note pairs in the treble. The dynamics are mostly soft, indicated by 'p' or 'pp'.

Sonata de 5.^o tono punto alto

Londide

This section contains two staves of musical notation for a piano. The top staff uses a treble clef, and the bottom staff uses a bass clef. The music features eighth-note patterns with some sixteenth-note grace notes. The dynamics are mostly soft, with occasional louder accents. The piece has a more rhythmic and energetic feel than the first movement.

This section contains two staves of musical notation for a piano. The top staff uses a treble clef, and the bottom staff uses a bass clef. The music consists of eighth-note patterns with some sixteenth-note figures. The dynamics are mostly soft, with occasional louder accents. The piece has a more rhythmic and energetic feel than the first movement.

This section contains two staves of musical notation for a piano. The top staff uses a treble clef, and the bottom staff uses a bass clef. The music features eighth-note patterns with some sixteenth-note grace notes. The dynamics are mostly soft, with occasional louder accents. The piece has a more rhythmic and energetic feel than the first movement.

Al confeccionar la monografía de Elgueta, entre los hijos ilustres de aquella villa, me encontré con el músico Juan Andrés Lombide. Nacido el 14 de noviembre de 1745, que a la temprana edad de diecinueve años era ya organista de la Capilla de Santos Juanes de Bilbao, a los veintitrés se ordenó sacerdote y, en 1774, a los veintinueve años figuraba de organista principal de la Capilla de la parroquia del Señor Santiago de Bilbao. En este cargo, en octubre de 1774, solicitó aumento de salario, que le fue adjudicado haciendo constar en una nota «y salario atento a la especial habilidad de organista y compositor».

Lombide presentó, con su dedicatoria, seis sonatas de clave y violín a la Sociedad Bascongada de los Amigos del País, del que era miembro (Extractos de la Sociedad, 1772), de los que hoy no se sabe el paradero. Además, escribió un libro o tratado de música bajo el título **El arte del organista**.

Estos datos se los debemos a las investigaciones realizadas por el R.P. José Antonio de Donostia, quien los publicó en sus obras sobre músicos vascos y música de tecla en el siglo XVIII, libros editados en 1951 y 1953. En esta última obra dió a la luz dos partituras que provenían del cartapacio de J.A. de Urreta, organista de Idiazábal, según indica en la introducción a dicha obra. Pero de otras obras nada se sabe en nuestros días.

He ahí un descubierto para los investigadores de nuestra

música y que las pistas se pueden seguir por los lugares donde Lombide desempeñó sus cargos.

Aunque Guy Bourligueux no le citara en su trabajo «Recherches sur la musique à la Cathédrale d'Oviedo» (publicado en **Mélanges de la Casa de Velázquez**, tome III, 1967), E. Casares Rodicio le cita entre los organistas de la catedral de Oviedo en su obra **La Música en la Catedral de Oviedo** (Oviedo, 1980). No obstante, será el actual organista titular de la catedral de Oviedo, don Angel González Pérez, quien nos ha facilitado noticias precisas de su paso por aquella catedral, en el trabajo publicado en el Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País (año XXXVII, 1981, páginas 630–634) bajo el título «Don Juan Andrés Lombide y Mezquia. Distinguido organista que fue de la Catedral de Oviedo». Ganó aquella plaza por oposición en noviembre de 1778 y ejerció su cargo por espacio de ocho años.

Durante su estancia en Oviedo tuvo algunos lances con el Maestro de Capilla, don Joaquín Lázaro, que en julio de 1782 el Cabildo le llamó al orden.

En marzo de 1786, tras reñidas oposiciones, ganó la plaza de organista principal de la Real Capilla de la Encarnación de Madrid, meta a la que aspiraban los más preclaros organistas de aquella época. Y es muy probable que en algún archivo de Madrid se guarden los manuscritos del elguetarra Lombide y su investigación es importante para el patrimonio de nuestra cultura musical.